

OIARTZUN / Manuel Lekuona bibliotekak 20 urte beteko ditu

Udal liburutegia duela 20 urte sortu zen, Jon Iñarra alkate zenean. Inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste: Jon Iñarra alkate jaunak, Maria Jesus Aranburu, kultura diputatu andereak eta Jaione Ugaldebere, kultura zinegotziak.

Hasieratik bere egoitza gaur egungoa izan zen, Donibane kaleko Ospital Zahar deritzon etxean, Errenazimenduko eraikinean. Etxe horretako hiru solairu hartu zituen. Martxan jartzeko lehenengo lanak Ester Casas-ek egin zituen.

Ireki bezain agudo, bi langile hasi ziren bertan lanean: Ana Alvarez eta Enrique Lekuona. Ondoren, beste langile hauek ere aritu dira lanean: Aintzane eta Izaskun Galardi ahizpak. Gaur egun, Kontxi Arruti eta Amaia Esnarriaga ere topatuko ditugu bertan. Liburutegi berriari Manuel Lekuona Udal Biblioteka jarri zitzaion izena, "Oiartzungo Seme Kutuna" zenaren omenez.

Liburu eta dokumentuak aukeratzea, katalogatzea sailkatzea eta irakurleen eskura jartzea helburu duen erakundea da gure biblioteka. Gaur ezagutzen dugun erakunde ireki eta erakargarrian bihurtu da. Gaur egun, liburutegia gizartearen jakintza gunea da; liburuak, egunkariak, aldizkariak, filmak, e-reader eta multimediak kontsultatzeko eta mailegatzeko lekua. Gainera, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu: ikasgela eta interneteko sarbidea.

Bibliotekaren antolaketa

Lehen solairuan harrera gunea dago, hau da, informazio puntua da, maileguak hartu eta uzteko tokiak. Bertan, Ana Alvarezek edota Enrike Lekuonak atsegin handiz liburutegiko antolaketari buruzko galderak, informazioa bilatzeko, liburu bat aurkitzen laguntzeko prest daude beti. Haur liburutegia ere hortxe dago. Horrela, 0-tik 16 urte arteko erabiltzaile gazteenentzako bildumak daude, norberak zuzenean eskuratzeko. Bideoteka ere badago.

Bigarren solairura igotzeko pasilloan hemeroteka dago, hau da, liburutegiak hartzen dituen aldizkariak, egunkariak eta astekariak jartzen dira erabiltzailearen eskura. Bertan irakurri ahal izateko gunea atsegina da.

Bigarren solairuan helduentzako atala dago. Bertan literaturak hartzen du leku nagusia. Ez dira falta narratiba, antzerkia, olerkia, bertsolaritza, saiakera eta biografiak. Hauek dira, hain zuzen, gehien mailegatzeko direnak. Erreferentzia atalean, berriz, gai guztietatik zerbait topatuko dugu. Adibidez, sukaldaritza edota psikologiako kontsulta liburuak, historia edota matematikakoak. Solairu honetan topatuko ditugu, bestalde, bidaietarako gidak: mundu osorako eta maileguan eramateko. Liburutegi osoan jendearen esku daude Internet sarera sarbidea duten lau ordenagailu. Horrez gain, WiFi-a ere erabilgarri dago dohainik.

Dohaintzak

Oiartzungo bibliotekak gaur egun hiru bilduma ditu. Lehenengoa, Juan Mari Lekuonaren bilduma. 500 liburu inguruk osatzen dute Juan Mari Lekuonaren biblioteka, gehienak euskal gaiak buruzkoak, eta Manuel Lekuona Bibliotekan

gordeta daude, Oiartzungo euskaltzainak nahi zuen bezala. Orain, Udal Bibliotekan katalogazio lanak Ana Alvarez liburuzainak egingo ditu eta ondare guztia oiartzuar eta euskaltzaleen eskura jarriko da.

Gauza bera egin zuen Udalak Manuel Lekuona zenaren liburutegi pertsonalarekin, horrek ere Oiartzungo herriari dohaintza egin zion eta. On Manuelen liburuekin Mari Jose Eskudero eta Iñaki Arrieta aritu ziren katalogazio lanak egiten.

Hirugarrena, berriz, Ramon Zulaika idazlearen bilduma. Leku eskasiarengatik, azken hau Eusko Jaurlaritzak gorde, katalogatu eta zabalduko du. Nolanahi ere, Ramon Zulaikak osatutako Pio Barojaren bilduma Oiartzunen geldituko da.

Aipagarria da Manuel Lekuona, Juan Mari Lekuona eta Ramon Zulaikaren dohaintzak beraien eskuzabaltasunaren seinale direla eta Bibliotekari ematen zioten garrantziaren lekuko.

Ikasgela zerbitzu berria

"Bibliotekak dituen liburuak, DVDak, dena delakoak... inportanteak badira, irakurleak are gehiago. 4000 inguru ditugu eta denak ezberdinak: ez dago erabiltzaile tiporik: batzuk oso maiz etortzen dira, beste batzuk oso gutxi; batzuk 3 urte, besteak 70; emakumezkoak zein gizonezkoak; batzuk eleberri beltza eskatzen dute beste batzuk sukaldaritza; badago DVDak bakarrik mailegatzen dituen, baita klasiko errusiarretan murgiltzen dena ere, edota egunkaria irakurtzera baino ez datorrena" azpimarratzen du Alvarezek.

"Eta horrelaxe osatzen dugu bilduma, irizpide profesionalarekin, hau da: lehenengo irakurleak eskatzen duena. Ondoren, irakurleak ez du eskatu baina eskaintzen badiogu, emango dio aukera? Hartuko du eskutan? Hasiko da irakurtzen bibliotekan eta mailegatuko du etxera eramateko? Izan ere irakurlerik gabe ez dago Bibliotekarik. Gainontzeko guztia: eraikuntza, liburuak, Dvdak eta Wifia irakurlearen jakin minaren ondorio dira" gehitzen du.

Liburuzainak dio aurten martxan jarritako berrikuntza batekin oso gustura daudela, ikasgela zerbitzuarekin. Izan ere, beheko solairuan gela bat ireki da ikasleek bere azterketa garaia ondo prestatu dezaten. Astelehenetik larunbatera ikasteko giro aproposa jasotzen duen gela da eta zabalik egoten da 9:00etatik 22:00ak arte. "Primeran funtzionatu du eta ikasleek erruz eskertu dute".

Hogeita zazpi mila liburu ditu bibliotekak erabilgarri. Baina sarean dagoenez, aukera dago beste bibliotekako liburuak eskuragarri izateko. "Astero-astero eta mezularien bidez Liburutegien Arteko Mailegua egiten dugu guztion funtsak konpartituz erabiltzaileen eskaerak betetzeko. Oraindik ohitura hau ez dago oso errotuta, baina poliki-poliki ari da gorpuzten". Izan ere, 611.935 titulu daude sarean.

Aurten, Dickens modan

"Gure bibliotekan klasikoak dezente irakurtzen dira. Aurten Dickens modan daukagu. Izan ere, idazle ingelesaren jaiotza mendeurrenean gaude eta horrek izan du bere erakargarritasuna", dio Alvarezek.

Urtean zehar ipuin-kontaktak antolatzen dira bibliotekan. Lur Korta eta Pello Añorga dira ipuin kontalari adituak. Bederatzi saio izaten dira, gutxi gorabehera, ttiki eta gaztetxoek gozamenerako. "Krisian gaude eta aurrekontua jaitsi digute, baina hala ere, guk liburuak erosten jarraitzen dugu. Zortedunak gara, benetan", dio pozarren liburuzainak.